

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

#### Hasiera ematea ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2026eko bilketari

Landa eta hiri ondasun higiezinaren eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2026eko ordainketak egiteko aldia jakinarazten da.

##### 1. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: udalak ondasun higiezinaren gaineko zerga bi zatitan bilduko du, eta zati horietako bakoitza ordaindu beharreko kuotaren ehuneko 50ekoa izango da.

Lehenengo epea. 2026ko ekainaren 19tik 2026ko abuztuaren 19ra. Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak kobratzeaz 2026ko ekainaren 22an.

Bigarren epea. 2026ko urriaren 21etik 2026ko abenduaren 21era. Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak 2026ko urriaren 22an kobratzeaz.

B) Premiamendu aldia: lehenengo epea, 2026ko abuztuaren 20tik aurrera.

Bigarren ordainketa, 2026ko abenduaren 22tik aurrera.

Bi epeetan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, eta dagokion erre-kargua aplikatuko (Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikulua).

##### 2. Ordaintzeko tokia eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak.

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratzearen banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak.

Ordainketa banku batean helbideratuta ez dutenek ordainketa zein banku kontutan egin dezaketen adierazten duen udalaren abisu bat jasoko dute haien etxeetan, eta borondatezko epean soilik egin ahal izango dute ordainketa, Kutxabank edo Laboral Kutxa banku erakundeetan.

##### 3. Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen alta edo aldaketak, zein interesdunei jakinarazpenak egiteko helbideen aldaketak, Iruraiz-Gaunako Udalaren bulegoetan izapidetu behar dira: kale bakarra 4, Azilu.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Azilu, 2026ko maiatzaren 28a

*Alkatea*

*IRATXE DEL BARCO MURUA*